

GIZARTE ZERBITZUAK

GUZTIONTZAT



Aurretiazko zita:

900 840 895

gizartezerbitzuak.basauri.eus



ZEIN DA GURE EGINKIZUNA?

Baliteke bizitzako une jakin batean edonork behar izatea **gizarte zerbitzuen** laguntza.


Gure helburua pertsonen, familien eta taldeen gizarte-ongizatea sustatzea da. Horretarako, informazioa, laguntza eta konpainia eskaintzen dizkizugu, eta azaltzen dizkiguzun beharrak edo egoerak baloratzen ditugu. Horrekin guztiarekin, plan pertsonalizatu bat egiten dugu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioen bidez laguntza egokiena eman ahal izateko.



NORK LAGUNDUKO DIT?

Profesional-talde bat gara, eta berariazko prestakuntza dugu zuri entzuteko, aholkuak eta konpainia emateko eta beharrian pertsonal edo familiarren arabera zerbitzu egokienak proposatzeko.

Tratu pertsonalizatua eskainiko dizugu. Hurbildu zaituz: zerbitzuok zuretzat eta zure familiakoentzat dira.



Aurretiazko zita: 900 840 895

Informazio gehiago : gizartezerbitzuak.basauri.eus


ANTZEKO EGOERETAN LAGUNDUKO DIZUGU:

«79 urte ditut eta bakarrik bizi naiz. Izugarri kostatzen zait kalera irtetea eta triste eta bakardadean sentitzen naiz»



«Aitak istripu bat izan du eta ospitalean dago. Bera arduratzen zen ama zaintzeaz, eta orain ez dakigu zer egin»

«Bikotekideak oso gaizki sentiarazten nau. Ez dut halakorik merezi, baina ez naiz harremana eteteko gai»



«Gure alaba nerabezaro betean dago, eta bizikidetza gero eta jasangaitzagoa da familiarentzat. Laguntza behar dugu»

ESKAITZEN DITUGUN ZERBITZUAK

Jarraian, eskaintzen ditugun zerbitzu eta prestazio nagusiei buruzko oinarrizko informazioa aurkituko duzu. **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baliabide guztietara iristeko atea gara. Asko dira zure behar partikularren arabera eska ditzakezun zerbitzuak:** familian esku hartzeko berariazko programak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako ordainketa bakarreko diru-laguntzak, kotizazio gabeko pentsioak, autonomia pertsonala sustatzeko laguntza-produktuak, hipoteka-bitartekotza, etab.



01 Guztiontzat:

>> Informazioa, orientazioa eta aholkularitza

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren edozein baliabide edo prestaziori buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzen dizkizugu, behar izanez gero eskatu ahal izan ditzazun.

>> Balorazioa, diagnostikoa eta arreta-plan pertsonalizatuak

Erreferentziatzko gizarte-langileak zure beharrak ebaluatuko ditu, eta, hala badagokio, egoeraren diagnostikoa egingo du. Aldi berean, arreta-plan pertsonalizatua diseinatuko du, lortu beharreko helburuak eta horretarako behar diren baliabideak zehaztuko dituena.

>> Gizarte-laguntza

Laguntza-harremana da, erreferentziatzko gizarte-langileak eta beste profesional batzuek bizi autonomia lortzen lagunduko dizun prozesuan zehar emandakoa.

>> Prestazio ekonomikoak

Gizarte-larrialdietarako laguntzak aldizkakoak ez diren diru-laguntzak dira, gastu jakin batzuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonentzat (adibidez, bizitokia, etxeko gastuak, etab.).

Aldizkakoak ez diren udal-laguntzak ohiz kanpoko laguntza ekonomikoak dira, baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen behar zehatz batzuk asetzeko.

Prestazioak jaso ahal izateko, laguntza bakoitzaren berariazko baldintzak bete beharko dituzu, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Informazio gehiago lortzeko, jarri gurekin harremanetan eta hitzordua emango dizugu. Aurretiazko zita: 900 840 895



02 Adinekoentzat:

>> Mendekotasun-egoera baloratzeko izapideak

Mendekotasun-egoera baloratzeko eskabideak nola bideratu azalduko dizugu.

>> Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsoneri zuzendutako laguntza- eta prebentzio-zerbitzua da, etxean bizitzen jarrai dezaten. Horretarako, hainbat etxeko arreta-zerbitzu eskaintzen dizkiegu. Izan ere, gure langileek eguneroko bizitza etxean bertan egiten eta komunitatean integratzen laguntzen diete.

>> Telelaguntza-zerbitzua

Zerbitzu honek telealarmako komunikazio-gailua integratzen du, telefono-linearen bitartez eta ekipamendu informatiko espezifiko bati esker, erabiltzaileei etengabeko arreta-zerbitzua eskaintzeko, 24 ordu egunean eta urteko egun guztietan. Halaber, zerbitzuko langileek prestakuntza espezifikoa dute eta, hala badagokio, berehala eskainiko dute behar den arreta mota, pertsonen autonomia- eta segurtasun-sentimendua indartzen lagunduz.


>> Mendekotasuna duten pertsoneri eta haien zaintzaileei

Zerbitzu honen bitartez, laguntza ematen diegu mendekotasuna duten edo izateko arriskuan dauden pertsonen zaintzaileei; zehazki, ezagutzak eta trebetasunak eskaintzen dizkiegu, beren burua zaintzen ere ikas dezaten.

>> Mendekotasun-arriskuan dauden pertsonentzako esku-hartze psikosozialeko zerbitzua

Hezkuntza-laguntza edo laguntza psikosoziala behar duten adinekoentzako zerbitzua; helburua laguntza ematea da, familia-bizikidetzeta eta bizikideen arreta- eta zaintza-trebetasunak hobetzeko. Horrela, eguneroko bizitzan modu autonomoan moldatzeko aukera ematen diegu.


03 Haur, nerabe eta haien familientzat



>> Esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala

Zerbitzu honen helburua prozesu bat abiaraztea da, pertsonak ezagutza, jarrera, ohitura eta gaitasun baliagarriak eskura ditzaten euren kabuz moldatzeko eta komunitatean arrakastaz integratzeko.

04 Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat




Indarkeria matxistak biktimengan eragindako **babesgabetasunaren ondoriozko beharrak baloratzearekin** batera, gizarte-laguntza eskaintzen diegu emakumeei prozesu osoan zehar (baita haien seme-alabei edo ardurapean daukaten edonori). Horretarako, beste profesional batzuekin aritzen gara lanean, beharrezko baliabide guztiak emateko. **Era berean, dagozkien prestazio guztiak bideratzen laguntzen diegu..**

>> Harrera-etxea

Harrera-etxeak ditugu eskuragarri iraupen laburreko egonaldia behar duten emakumeentzat, jasandako indarkeria matxistaren egoera gainditzen laguntzeko.



05 Desgaitasunen bat duten pertsonentzat




>> Desgaitasunaren balorazioa

Desgaitasun-egoera baloratzeko eskabideak nola bideratu azalduko dizugu.

>> Aparkaleku-txartelak

Desgaitasunen bat duten pertsonentzako aparkaleku-txartelak kudeatzea eta izapidetzea.

06 Gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonentzat





>> Arrisku-egoeraren balorazioa eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baliabide guztien kudeaketa



Informazio gehiago lortzeko, jarri gurekin harremanetan eta hitzordua emango dizugu. Aurretiazko zita: 900 840 895

Non GAUDE?


Bi egoitza ditugu: bata Bidearte kalean eta bestea Pagomakurre kalean (San Migel auzoan erroldatuta dauden herritar guztiei zuzendua).



Bidearte kalea

Arreta-ordutegia:

Urritik maiatzera: 9:00etatik 14:00etara
Ekainetik irailera: 9:00etatik 13:00etara



Pagasarri kalea

Arreta-ordutegia:

Urritik maiatzera: 9:00etatik 14:00etara
Ekainetik irailera: 9:00etatik 13:00etara

*Hizkuntza ulertzeko zailtasunak badituzu, gizarte-zerbitzuek eskainitako aldi bereko itzulpen zerbitzua eska

Aurretiako zita: 900 840 895

Informazio gehiago : gizartezerbitzuak.basauri.eus